

## PRENTSA OHARRA 70/24

### RAMMSTEINEN-EN KONTZERTURAKO AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA

Ekainaren 5ean 20:45etan, Rammsteinek Anoetako Estadioan emango duen kontzertua dela eta, **Dbusek autobus zerbitzu berezia eskainiko du.**

- **Kontzertuaren aurretik:** 17:00ak eta 18:00ak bitartean, 15 minuturo, eta 18:00 eta 21:00 bitartean, 7 minuturo, zerbitzu berezia eskainiko da Poliklinika eta Anoeta artean, Illunbe eta Miramoneko aparkalekuetatik Estadiora joan ahal izateko. Geltokiak Illunbe, Ospitaleak eta Poliklinikan egongo dira. Gainera, Miramonetik Anoetara joateko zerbitzuak egongo dira 17-Gros-Amara-Miramón eta 28-Amara-Ospitaleak lineekin.

Halaber, ondorengo zerbitzuak eskainiko dira:

#### Boulevardetik:

- 28-Amara-Ospitaleak, 26-Amara-Martutene eta 21-Mutualitateak lineak 17:30etatik minutu gutxiro.

#### Grosetik:

- 17-Gros-Amara-Miramón linea 18:00etatik 12 minuturo.

#### Antiguotik:

- Linea berezia 18:00etatik 15 minuturo, eta 24-Altza-Gros-Antiguo-Intxaurren linearen ohiko zerbitzuak 30 minuturo (xx:00 eta xx:30 Zumalakarregi 9tik).

#### Alztatik:

- 18:15etatik 27-Altza-Intxaurren-Antiguo-Gros linearen ohiko zerbitzuak 30 minuturo (xx:00 eta xx:30 Larratxo III-tik).

#### Intxaurren:

- 18:30etatik 27-Altza-Intxaurren-Antiguo-Gros linearen ohiko zerbitzuak 30 minuturo (xx:07 eta xx:37 Zarategitik).

#### Egiatik:

- 18:40etatik 27-Altza-Intxaurren-Antiguo-Gros linearen ohiko zerbitzuak 30 minuturo (xx:14 eta xx:44 Virgen del Carmen-etik).

### **Bidebieta, Herrera, Intxaurrondo Zaharra eta Ategorrietatik:**

- 24-Altza-Gros-Antiguo-Intxaurrondo linearen ohiko zerbitzuak 30 minuturo (xx:22 eta xx:52 Renfe-Herreratik).

### **Martutene eta Loiolatik:**

- 26-Amara-Martutene linearen ohiko zerbitzuak 15 minuturo (xx:00, xx:15, xx:30 eta xx:45 Virgen del Pilar-etik).

### **Aietetik:**

- 31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza linearen ohiko zerbitzuak Aietetik, Aiete Pasealekua, Oriamendi eta Begiristain-dik Anoetaraino, 30 minutuz behin (xx:01 eta xx:31 La Cumbre-tik).

- **Kontzertua amaitu ostean:** 00:15ean-00:30ean gutxi gorabehera zerbitzu bereziak eskainiko dira ondorengo auzoetara:

- 1** Antiguo
- 2** Gros, Ategorrieta y Bidebieta
- 3** Erdialdea-Boulevard
- 4** Egia, Intxaurrondo y Altza
- 5** Erriberak, Loiola y Martutene
- 6** Ospitalek-Miramón
- 7** Igeldo



Informazio gehiagorako, deitu 900 840 146 telefonora, edo [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) webgunean.